

- Entzutekuak: Lola Sanchezi elkarrizketa
- Kultura: Korrika kulturalako egitaraua

soraluzeko  
hamabostekaria **195.** alea  
2009ko otsailaren 13an

# pil-pilean



**Aittita-amamak  
bolondresak behar dituzte**



Euskaraz bizi  
nahi dugunon  
herrira!  
Al pueblo de los  
que queremos  
vivir en euskera!  
**korrika**

## Euskararen mundura bidaiatu dutenak...



**VICENTE VAQUERIZO**

Hemen bizi bazara derrigorra ikastia, inguruakin egoteko nahixa, integratzeko gogua bihar da ta ez jatan ezer kostau. Jardunian ikasi neban euskaraz, plaentxiako estiluan (*plaentxieraz*).



**MARIA JOSE ARMENGOL**

Duela bi urte etorri nintzen Huescatic eta EPAn hasi nintzen euskara ikasten. Gustora nago baina zaila da. Gutxienez oinarrizko gauzak ezagutu nahi ditut.



## KORRIKA SORALUZEN EGITARAUA

- “Euskararen mundurako bidaia”. Dokumentala eta mahai ingurua.

“Viaje hacia el mundo del euskera”. Documental y mesa redonda.

MARTXOAREN 17an, asteartea.  
Kiroldegiko erakusketa gelan.

17 de MARZO, martes. Sala de exposiciones del Polideportivo.

- Di Bai ! Bertso afaria (*Itzulpenarekin*). Cena de versos Di bai! (*Con traducción*).

MARTXOAREN 26an, osteguna.  
19:30ean Ibai Eder elkartean.

26 de MARZO, jueves. Sociedad Ibai Eder a las 19:30.

*\*Egitarau osoa Kulturaren.*



**OLATZ GARRO ARRANZ**

Euskaraz egiten zuen kuadrila batekin hasi nintzenez sentitu nuen ikasteko beharra. Euskaraz ikastia aberastasuna eta errespetua da, pertsonala zein kolektiboa.



**NORA MOUJANE**

Bereberez eta frantsesez badakit eta eskolako andereñuak animatu ninduen ikastera. Istitutuan eta lagunekin praktikatu ikasi dot. Neretako oso baliagarria izan da euskeraz ikastia.



UBANE MADERA



MIKEL SANTIAGO

## KAPITALISMOAK PORROT, ORAIN ZER?

**K**aixo Mikel: Guztien lanekin dirua irabazi eta azkeneko 15 urteotan majo aberastu eta gero, orain dirurik ez dutela-eta, gobernuari diru eske ikusten gabiltza enpresari asko. Baina hori ez da larriena; diru eske ibiltzeaz gainera, EREak egiten dabilta gehienak, eta askok EREak bukatu ostean, ez dute lehengora bueltatzeko asmorik. Hau da, ez dute asmorik fabrikari ibili diren langile guztiak berriro ere hartzeko.

Bueno, Mikel; jakingo duzu zeren gainean nabilen, ezta? Bai ba: krisi madarikatua! Enpresarien kasua aipatu dut, plazentziar askoren etorkizuna dagoelako haien esku. Baina horrek ez du esan nahi gertu-gertuan ez dutela beste inor; hortxe daude-eta banketxeak, enpresariekin eskutik.

Zeinek uka ditzake banketxeek izandako izugarritzko aberastasunak, euren ahotik entzun dugu-eta urtero esaten zenbat handitu dituzten honako banketxe honen edo beste haren irabaziak. Baina horiei ere, derepente, irabazitako guztia ebanoratu zaiela dirudi. Horiek ere diru eske. Eta okerrago: norbere diru bila joan diren bezeroei dirua ukatzen. Begira bestela Santanderren Banif horrekin zer gertatu den.

Eta guztiaren erdian gaude beste guztiok kaka eginda, zer etorriko den beldurrez. Honez gero, munduko agintariak konturatuko ziren ba sistema kapitalistak porrot egin duela, ezta? Aldatu egin behar, ala? Edo ez dago halakoetarako interesik? ●

### Aldatu egin behar, ala?

Ubane Madera

### Bizitzeko modu justuago bat eraiki dezagun

Mikel Santiago

**A**upa Ubane. Sakonera handietan sartuta zatoz oraingoan, kapitalismoa, krisia, sistemaren porrota...eta honen aurrean zer?

Bizi dugun sistema hau aspalditik dago krisian, hasiera-hasieratik esango nuke nik. Sistema bat ez da ona ahulenak baztertzen baditu, goseak hiltzen direnen aurrean begiak ixten baditu, munduko baliabideak urriak izanik neurririk gabe aberastearen aurrean “merkatuaren askatasuna” besterik aldarrikatzen ez badu eta gizartearen ongizatea bilatu beharrean bakoitzak bere burua salbatu behar duela sustatzen badu.

Honetaz guztiaz, ordea, ez gara jabetu gure burua arriskuan ikusi dugun arte. Orain bai, orain KRISIA dator. EREak, presa, kezka, kapitalismoa zalantzan jartzen dugu... eta orain arte zer egin dugu? Sistema honen ondorio txarrak beste batzuek pairatu dituztenean beste alde batera begiratu dugu eta gure bizimodu maila hobetzeari begira bizi izan gara.

Agintariak nekez egingo dute aldatetarako ezer herritarrok bizitzeko moduz aldatu nahi ez badugu. Guk geuk aldatu beharra daukagu eta horrekin batera gizartearen PARTE HARTU behar dugu, guztion artean bultza eginez gauzak alda daitezten.

Bolada txarra tokatu zaigu orain. Herritar asko EREak jota daude eta beste asko langabezian. Niri ere etorri zait nire ERE partikularra. Horregatik inoiz baino garrantzitsuagoa da guztiok mobilizatzea, aurreko sistema bere horretara bueltatzeko neurrien alde egin beharrean, bizitzeko modu justuago bat eraiki dezagun. ●

Goguan hartzeko

“Dagoen artean, faltarik ez!”

Gotzon Garate, atsotitzak



## GUTUNAK

Adar Jotzerik Ez !!

2009ko Udal aurrekontuari dagokionez, Sorluzeko EAJ/PNV Udal taldeak 6 EMENDAKIN aurkeztu zituen:

1.- Erregetzeko lur azpiaren salmenta burutu aparkalekuak egiteko. Salmenta honetatik ateratako diru kopuruarekin (300.000 €) Udalerriaren Egune-ko Zentrua egiteko proiektua martxan jarri. (EZ DA ONARTU)

Alkateak, hauteskunde kanpainan adierazi zuen APARKALEKU PUBLIKOAK egingo zituela. Bete dezala herritarrei emandako hitza!

2. Kirodegiko gaina amaitzeko (60.000 €) partida bat zehaztu. Gaztelekua, kafetegia eta umeentzako jolasak ipintzeko.

Onartu den bakarra 2009ko aurrekontuetan 5.699 €tako partida bat izan da proiektua egiteko. Bestetik ez.

3. Plaza Zaharraren urbanizazioa exekutatzeko 250.000 €tako partida bat zehaztu.

Onartu den bakarra 2009ko aurrekontuetan 10.000 € tako partida bat izan da proiektua egiteko. Bestetik ez.

4. Zubi nagusiko kumun publikoak berritzeko 36.000 €tako partida bat zehaztu.

Onartu dena 30.000 €tako partida bat izan da

Erremina eta manipulazioa ez dira bidai lagun onak, ohitura kezagarriak baizik.

Abendura arte nesken arduraduna izan nintzen eta Olatz eta Jasek bidalitako idatziari buruz zehaztasun batzuk egin nahi ditut.

1. Bi entrenamendu egiten genituen. Asteartean kiroldegian entrenatzen genuen eta talde erdiak kanpoan ikasten duelako, ostiraletan futbol zelai zikin horretan.

2. Horretaz gain, zuetako batek partidu baten atsedendian taldekideen aurrean horrelako "perla" batzuk bota eta gero ze sinisgarritasun izan dezake?: "si llego a saber no vengo a este equipo, este campo es una mierda". Egun horretan taldea utzi izan bazenu, makina bat sufrimendu eta buruauzte aurreztuko genituen.

3. Aldagelari buruz eta sorluzeko mutilen taldea ezagututa ez dut uste zuekin akordio batetara iristeko arazorik egongo zenik. Baina kanpokoen aldagela ez al da etxeoena baino egokiagoa?

5. Frontoiko 5 zenb. Udalaren jabetzakoak diren etxebizitzak alokairu sozialera atera. (Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmena gauzatu 2009ko urtean)

Hitz polit asko baina ekintza gutxi. Ordua da zer-bait egiteko!

6. Agarrebeztei - Osuma bitartean biondak ezar-tzea eta bidearen konponketa burutzeko 10.000 €tako partida bat zehaztea.

Osotasunean onartu den emendakin bakarra dugu.

ONDORIOZ: Adierazi nahi dugu, aurkeztu ditugun 6 emendakinek, guztira, 656.000 € suposatzen dutela. 2009ko aurrekontuetan, zehatz meatz 55.699 € soilik onartu dira guk proposatutako emendakinetzat. Konkretuki % 11. Hau al da Udal Gobernuak adierazi duen moduan 6 emendakinetatik 5 onartzea? Hau dela eta gure taldeak 2009ko Udal aurrekontuari ezezko bozka eman dio aurretik azaldu dugun guztiagaitik.

FUTBOL ZELAIA: Nahiz eta aurrekontuak ez onartu, Udal Gobernuak proiektu hau egikaritzeko kreditu aldaketa proposatzen duenean GURE TALDEAK BAIEZKOA BOZKATUKO du.

4. Sukaldaritzari buruz esan behar da salda eta txorizoa soilik goizetik jokatzen diren partiduetan izaten direla. Hala ere, jarratzaile eta ama batzuei eskertu nahi diet partidu ostean ere pasta, tarta eta tortila ederrak taldearentzat eraman izana.

5. Ez dut onartzen baina, zuenak ez diren dominak zuengain jartzea. Taldea osatzerako (federazioko bilererata joan, entrenatzeko lekua topatu, esponsorrak bilatu eta beste hainbat egin beharreko), zuen taldekideek ondo baino hobeto dakite nor izan zen buru belarri jardun zuena. Beti ere, talde hau aurrera atera nahian eta oso pozik gainera, ilusio haundiarekin.

6. Aukera hau aprobetxatu nahi dut taldeari animoak emateko! Bukatzeko, garbi baino gargiago utzi nahi dut, Gipuzkoan barna, hainbeste urtean, Ezoziko futbol zelaian jasan dituzten miseriengaitik, inor baino gehiago Sorako jokalariek direla futbol zelai duin eta egoki bat merezi dutenak.

Alberto Berraondo Iraola (entrenatzaile ohia)

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari-ko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

pil-pilean

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Sorluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzio burua:** Leire Iturbe **Erredakzio batzordea:** Egoitz Unamuno, Enara Agirre, Jon Basauri eta Aitor Madrid **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORLUZEKO UDALA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## bittartetik



Olatz Sebal

Homofogo deklaratu eta ez deklaratuak

Gaurkuan zuengana zuzentzen naiz, sorluzetar homofobo deklaratu eta ez deklaratuak. Kalia entzundako azken astakerixia: "zerbaitx egin biharko dogu, Soraluze lesbianaz betetzen dabil eta". Uf, zelako arriskutsua! Zeinentzat izan leike hau mehatxu bat? Zer nahi da esatia "zerbaitx egin biharko dogu" horrek? Zeineri ardura jako nere bizitza pribatua? Gaur ze bazkaldu doten edo zeinekin oheratzen naizen? Eta zein maitte doten? Galdera larregi zuen buru sinplientzat. Zuen bizitza grisa pizteko bandera gay-ko kolore bakoitza eskaintzen dotsuet. Zer-baitx egin biharko dogu bai, zuen gaixotasuna herritik ez zabaltzeko.

**GORA SEXU ASKEA**  
**ETA GORA NORBERA-**  
**REN INTIMITATEA!**

## ((ENTZUTEKUAK))

LOLA SANCHEZ

Euskaraz ikasi zuen Valentziatik etorrira



Asko eta asko dira, arrazoi ezberdinengaitik, bere jaioterria utzi eta Euskal Herrira etorri diranak. Batzuk euskeraz ikasteko bidea egin dute. Horietako bat da Lola Sanchez. 57 urte ditu eta jaiotzez Valentziakua da, Bonrepas herrikua.

**Oin dala zenbat urte etorri zinan Sorluzera bizitzera? Zergaittik?**

33 urte beteko dira urtarrian, Sorluzera bizitzera etorri nintzanetik. Nere gizona Valentzian ezagutu neban baina sorluzekua da eta hemengo lantegi baten egiten zeban lan. Bere lanagaittik etorri ginan.

**Noiz, non eta nola hasi zinan euskaraz ikasten eta zergaittik?**

Nik AEK euskaltegixan eman nittuan lehenengo urratsak. Sorluzen bizitzen geratzeko ginar eta euskara bihurtuta baino nere kabus, poliki-poliki ikastia nahi neban. AEK eta gero, irakasle izateko oposaketak egin nittuan eta orduan hizkuntza-eskakizunak bete bihar izan nittuan. Lehenengo Donostian, gero Gasteizen eta azkenik, 10 urte pasatu ostian, EGA ateratzia lortu neban.

**Zuk balentzianoz be badakizu. Horrek eragin izan zeban?**

Nere ustez bai. Elebiduna izatiak, beste hizkuntza batzuk ikasteko burua zabalik izatia ahalbidetzen dao.

**Ze zailtasun azpimarratuko zenuke euskaraz ikasteko egin biharreko bidaia horretan?**

Neretaz aditzak ikastia da zailena. Valentzianuak eta euskarak ez dake zerikusirik eta honek euskaraz ikasteko gogua piztu zotan. Txipa aldatu eta egin bihar dot! pentsatzen neban.

**Euskara ikasi izanak merezi dabela uste dozu?**

Bai, dudarik gabe! berriz egin bihar izango banaban, egingo neban! Euskaraz jakitiak, herremanak landu eta indartzen lagundu dosta eta nere inguruekin euskaraz komunikatzia eta esaten dabena ulertzia plazer bat da!

**Ze iritzi dakazu Korrikan inguruan?**

Oso ekintza polita dala pentsatzen dot, euskerian alde egiten dan edozer txalotu egin bihar dogula uste dot, batez be, hizkuntza zaindu eta bultzatu egin bihar dalako. ●

Hizkuntza zaindu eta bultzatu egin behar da

**IÑAKI IÑARRA**  
HARATEGI ETA URDATEGIA

Enkarguz eskatutako janaria ere prestatzen dugu

Kalebarren 29  
Sorluze  
T. 943 75 12 49

**HÑOS. BENITO ANAIAK**

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak  
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47  
Santa Ana 26, 20590 SORLUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

# Peio Etxeberria askatzeko eskatu dute senideek



Apirilaren 16an, Peio Etxeberria 20 urte beteko ditu gartzelan. AAMek (Soraluzeko Amnistiaren Aldeko Mugimendua) hainbat ekitaldi antolatu ditu egoera hori salatu eta "dagokion askatasuna" eskatzeko.

Domekan, hilaren 8an, Peioren senideek prentsaurrekoa eskaini zuten Arrano elkartearen. Bertan, Peioren egoera azaldu eta 2006ko irailetik espetze zigor osoa beteta duen arren oraindik kartzelan jarraitzen duela salatu dute. Datozen hilabeteetarako antolatu

dituzten ekintzen berri ere eman zuten. Apirilean, udalean mozioa sartzeaz gain, martxoa bitartean, eragileekin interpelazioak egingo ditu AAMak. Peioren inguruko informazioa zabaldu eta bere askatasunaren aldeko sinadurak ere jasoko dituzte martxo eta apirilako asteburuetan. Maiatzaren 16an berriz, ekitaldi bat antolatuko dute Peioren askatasuna eskatzeko. Askatasun eskaerarekin bat egiteko eskaera egin diete soraluzetar guztiei.



## Martxoak 8ko elkarretatzea

Martxoaren 8an Emakume Langileen Nazioarteko Eguna ospatu zen, eta udaleko emakume batzordeak deituta, elkarretatzea burutu zen Plaza Barrizan. "Bazterketaren aurka, eskubideen alde" lemapean, 60 bat lagun inguru bildu ziren.



## Martxoaren 28an Gazte Eguna



Debabarreneko Gazte Eguna ospatuko da martxoaren 28an Elgoibarren eta Soraluzeko gazteek deialdia luzatu nahi dute. Eguerdiko 13:00etan Plaza handian harrera eta ekitaldia egingo da, jarraian, triki poteoa eta ondoren bazkari herrikoia egingo dute Gazte-txean. Arratsaldean, manifestazioa eta ekitaldia izango dira eta gaueko 22:00etan kontzertuak: **Odolaz blai, Junzai txetxera, Ekinocio eta DJ Norman Duval.**

## Estazioko kale-argiak aldatu dituzte

Plataforma baten bitartez, farolak espaloien eskina batera mugitu dituzte; lehenago espaloien erdialdean zeuden eta. Aldaketa honek, oinezkoek espaloian leku gehiago izatea ahalbidetuko du.

## Itxaropena Elkarteak batzar nagusia

99 pertsona bildu ziren martxoaren 3an jubilatuek urtero egiten duten batzar nagusian. Besteak beste, aurreko batzarreko akta onartu eta aurrekontua zehaztu zuten. Udalak, 10.200 euro bideratuko ditu bertara eta beste hainbat ekintzen artean, irteerak, karta txapelketak, hitzaldiak eta dantzaldiak egiteko erabiliko dute aipatutako dirua.

# "Bizi-kale" elkarteak sortu dute dendari eta tabernariak



"Bizi-kale" izenarekin osatu dute herriko dendari eta tabernarien elkarte. Joan zen egunean egindako bileran hartu zuten erabakia. Dagoeneko 30 denda, taberna eta jatetxe biltzen ditu elkarte berriak. Zuzendaritzako kideak ere aukeratu dituzte. Iratxo goxodendako Itziar Agirre dendaria aukeratu dute elkartearen lehendakari kargurako eta Txoko kafetegiko Luki Hontangas tabernaria izan-

go da lehendakariordea. Elkartearen erregistratzeko paperak bete ondoren, apirilean elkarte ofizialki eratuta izan eta dirulaguntzak eskatzeko asmoa dute. Datozen hilabeteetan elkartearen funtzionamendua, helburuak eta aurtengo urtean egingo dituzten ekintzak adosteari ekingo diote. Herriko merkataritza indartu eta prestigiatzea izango da elkartearen zeregin nagusia.

Elkarteko kide batzuk.

## EAJ-k lortu ditu boto gehien Soraluzen

Martxoaren 1ean egin ziren 2009ko Eusko Jaurlaritzarako hauteskundeean, EAJ alderdiak 623 bozka jaso zituen, PSEri 56 boto inguruko alde aterata. Alderdi honek 567 bozka jaso zituen, **D3Mk 441, PPK 194, Aralar-ek 166, EAk 145 eta EBk 44.**

URTEA	2009	2005
Errolda	3.255	3.475
Zuriak	17	8 (%0,002)
Baliogabeak	17	8 (%0,002)
Abstentzioa	1.032	1085 (%31,2)

ALDERDIAK	2009	2005
EAJ-EA	...	928 bozka
EAJ	623 bozka	...
PSE	567 bozka	434 bozka
EHAK	...	509 bozka
D3M	441 bozka	...
PP	194 bozka	309 bozka
ARALAR	166 bozka	90 bozka
EA	145 bozka	...
EB	44 bozka	93 bozka

## Soraluzeko emakumeen pala txapelketa

Soraluzeko emakumeen pala txapelketan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago. Martxoaren 31a bitartean, Gaztelupe eta Arrano tabernetan egongo dira zerrendak zabalik eta 25 euro ordaindu beharko da.

# LAURA GARCÍA

Egoitzako aisialdiaren arduraduna



*Bizitzaz  
gozatu egin  
behar dela  
erakusten du  
leku honek*

Laurak 32 urte ditu eta ermuarra da. 6 urte daramatza Mesedeetako Amaren egoitzan lanean.

## Nondik sortu da boluntario taldea osatzeko asmoa?

Soraluze da Nagusilan elkarteko boluntario talderik ez duen Debabarreneko herri bakarra. Hemengo aitona-amona batzuk esaterako, 5 urtetan ez dute herria zapaldu, edo ez dute herriko kafe-tegi baten kafea hartu. Euredako, irteera txiki hauek egitea izugarria da!

## Zer egitea nahi duzue zehazki?

Gure helburua aitona-amonon monotonía apurtzea da. Nagusilane bideratuta, boluntarioz osatutako talde bat sortu eta egiten ditugun ekintzak baino gehiago egitea. Irteerak, paseoak eta azken finean nagusiei konpainia egitea da guk lortu nahi duguna. Zaharren Egoitzari bizitza pixkat ematea.

## Gaur egun zenbat jende joaten da? Zelako jendea da?

Elizako andrak etortzen dira sarritan esaterako, nagusiekin egotera eta beraiekin abestera; beste batzuk kartetan jolastera etortzen dira, hitz egitera eta azken finean, konpainia egitera. Musika Eskolakoak ere noizen behin jotzera etortzen dira eta misioetako jendea ere hurbiltzen da guregana.

## Ze motatako ekintzak egiten dituzue orokorrean?

Irteerak (*Debako hondartzara eta Elgoibarko jaiotza ikustera*), data berezietan (*gabonetan*)

tailerrak, Musika Eskolakoekin dantzaldia, Don Enrike apaizak diapositibak ekartzen dizkigu, barixakuetan Bingora jolasten dugu, hilabeteko azken barixakuan hilabete osoko urtebetetzeak ospatzen ditugu eta gero egunerokoan eskulanak, gimnasia, eta memoria lantzeko ariketak ere egiten ditugu.

## Zer egin beharko luke bolondresak erresidentzian?

Batez ere konpainia egitea da eskatzen dieguna. Norbaitek medikura joateko laguntza behar badu berarekin joatea edo giroa alaitzea. Mundu guztiarentzat dago lekua. Oso garrantzitsua da aipatzea Nagusilaneko boluntario guztiek aseguru izango dutela.

## Eta zer aportatu diezaioke pertsona bati erresidentziara joateak?

Esperientzia izugarria da. Hemengo egoera eza-gutu eta gizatasuna lantzeko aukera dago hemen. Errealitatea eza-gutu, baloreak aldatu, gauza txiki-ekin gozatu, azken batean, bizitzako ikuspuntu orokorra izaten laguntzen du. Izan ere, urte batzuk barru edonor egon daiteke gaur aitona-amona hauek dauden lekuan. Nire ustez bizitzaz gozatu egin behar dela erakusten du leku honek. ●

*Nagusilan Elkartea*

## Antonio Gimenez eta Jesus Arizona

Koordinatzaileak Eibarren.

**NAGUSILAN ELKARTEA** Donostian sortu zen 1995ean. Eibarren berriz 1997tik dago martxan eta Antonio Jiménez da koordinatzailea. Antonioren esanetan, boluntario taldea sortzeko bidea ez da erreza izan. Hasieran 2 pertsonak eman zuten izena eta gaur 21 boluntario taldea da. 2008an, 58 irteera antolatu zituzten. Boluntario izateko gogoa izatea eta nagusiekin momentu politik pasatzeko aukera aprobetxatzea da garrantzitsuenak.

Elkartearen egitekoen artean, besteak beste, etxeetara eta Zaharren Egoitzetara laguntza eskaintzea, giroa alaitzea, eta urtean zehar antolatzen diren irteeretan laguntza eta babesa ematea dira ohikoenak. Honekin batera, “Zilarrezko telefonoa” jarri dugu martxan. **900 71 37 71** telefonoan, hizketaldiak eskaintzen

*Gogoa  
izatea eta  
momentu politik  
bizitzeko aukera  
aprobetxatzea da  
garrantzitsuena!*



dizkiete etxean bakarrik bizi diren aittitta-amamei. Ekimen honetan 20 boluntario taldeak hartzen du parte eta egunean dei asko jasotzen dituzte. Antonioren esanetan, Zaharren egoitzako nagusiek, asko eskertuko dute ekintza guzti hauetan parte hartzea.

Jesus Arizona eta Antonio Garcia.

## IZENA EMATEKO MODUAK ETA INFORMAZIO GEHIAGO:

<b>Udaletxea:</b>	<b>943 75 30 43</b>
<b>Gizarte Zerbitzuak:</b>	<b>943 75 50 56</b> (Irantzugaitik galdetu)
<b>Zaharren Egoitza:</b>	<b>943 11 36 telefonora deitu</b> (Lauragaitik galdetu) <b>edo bertara jo. Arratsaldeko 15:00etatik 22:00etara.</b>
<b>Zilarrezko telefonoa:</b>	<b>900 71 37 71</b> (Dohainik da eta laguntza telefonikoa eskaintzen dute)

2008ko uztailean Debara egin zuten irteera. ▼

## Pasiuan atera, kafea hartu edo hondartza ikusi!

Zaharren egoitzan aurkitzen dauden nagusiei, boluntarioekin zer egitea gustatuko litzaien galdetu ezker, gehienek “pasiuan atera!” erantzuten dute. Beste batzuk, kafea goxo-goxo hartu eta hizketalditxoak izan edo kartetara jolastu. Denak balio du! Azken finean, errutinatik irteten eta momentua gozatzeko aukera aparta izango dute izena ematen duten boluntarioek.




# ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Soraluzeko zaharren egoitzak boluntarioak biltzeko kanpaina jarri du abian. Garai hauetan baina, zaila da lan hau beteko duen jendea aurkitzea. Askok denbora falta dute eta beste askok berriz, diru falta.

## Boluntario lanak egingo zenituzke?

**SUAR AIZPURU**  
Langabetua



**N**ere ustez, tarteka egin ezkerro, errezeruan leike boluntarixoz izatia. Oso gogorra pentsatzen jata baina, nagusixekin lana egittia. Baina derrigorrez egin biharko baneban, egingo neban!

**SINFONIANA MUÑOZ**  
Etxekoandrea



**N**eri oso ondo pentsatzen jata boluntarixuak betetzen dittuen lanak aurrera egittia baina ni, zoritxarrez, osasunez nahiko makal nabil eta nahitta be ezingo neukan. Uste dot, mundu guztixak, momenturen baten, laguntza bihar izango dabela eta orduan zer?

**MARIA KRISTINA JAUREGI**  
Etxekoandrea



**N**ere semiak daukan gaixotasunagaittik, Etxolarte elkartiak bideratuta jasotzen dau, boluntarixuen laguntza. Eta eskerrak! Baina nik eztaukat denborarik horretan ibiltzeko, gizona be zaindu bihar dot eta. Eskerrak holako jendia dagan, bestieri laguntzeko prest!

**JOSE ANTONIO ARRIOLA**  
Mekanikua



**U**ff... nik, momentuz, eztaukat denborarik boluntarixoz lanak betetzeko lanian nao eta. Baina oso ondo ikusten dot betetzen dittuen lanak egittia eta informazinua zabalitzen, igual, jende gehixagok izena emango leukela pentsatzen jata.

**KOMIKIXA**



# KORRIKA 16 Soraluzen ONGI ETORRI!!!



**A**urtengo Korrika berezia izango da. 16. Korrika hone-tanetako protagonistak euskaraz ikasten diharduten per-tsonak izango dira. Guztira, 50 pertsona baino gehiago dira herrian euskaraz ikasteko bidaian murgildu direnak (*Espainiatik, Kataluniatik, Hego Ameriketatik, Afrikatik eta Europako beste herrialde batzuetatik etorritako lagunak*). Baita bertan euskararik ikasterik izan ez duten euskal herri-tarrak ere. Korrika Batzordeak erabaki du beraiei ematea aurtengo Korrikan, protagonismo osoa. Bestalde, jakitera eman dituzte Korrika Kulturalaren barruan antolatutako ekimenak:

- **MARTXOaren 17an, martitzena:** DOKUMENTALA Bidaia Intimoak eta herriko kide batzuekin euskalduntzearen bidaia MAHAI INGU-RUA. 19:00etan AEK-ko lokalean.
- **MARTXOaren 20an, zapatua:** EUSKARAZKO FILM LABURRAK. 22:00etan Gaztetxian
- **MARTXOaren 22an, domeka:** PANTXIKA ETA TXINPARTA pailazoak. 18:00etan Kiroldegiko Hall-ean
- **MARTXOAREN 26an, eguena:** AFARI-MERIENDA Ibai Eder Elkartearen bertsolariekin lagunduta. Aurretik poteoa, 19:30etan Plaza Berritik
- **MARTXOaren 27an, barixakua:** NAPOKA IRIA kontzertua Gaztelupe tabernan. 22:30etan.
- **APIRILaren 2an, eguena:** KORRIKA TXIKIA Arratsaldean haurrentzat jolasak
- **APIRILaren 4ean, zapatua:** KORRIKA EGUNA - 19:00etan EKITALDIA Gila zubian - Girotzeko musika, txosnatxoa (pikoteo eta edateko aukera) eta bestelako sorpresak egongo dira!! - 21:00etan AFARI HERRIKOIA - 23:20 ONGI ETORRI KORRIKA
- **APIRILaren 5ean, domeka:** KORRIKA BUKAERA GASTEIZEN. (Autobusa jarriko da)

## KORRIKAKO EGITARAUA

- **MARTXOaren 15ean, domeka:** MENDI MARTXA. Karakate-Irukurutzeta. Ondare historikoaren inguruko azalpenak. 9etan Erregetxetik (kotxez igotzeko) bestela 9:30etan Karakaten.



**Abesbatzaren kontzertua**  
Hilaren 7an, Soraluzeko abesbatzak eta Gasteizeko Sanbiator abesbatzak, kontzertua eskaini zuten Elizan. Hurrengo kontzertua, apirilaren 4an, zapatua, emango dute Gasteizen.



**Ion Murgizu Pinturak**  
MARGOKETA OROKORREAN  
Empapelatuak  
Estukoak  
Fatxadak  
Eskilarak eta patioak  
Pintura industrialak  
T. 943 75 1324 M. 652 777 030  
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Javier Alonso Zelaeta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K.Z. 20.000.434  
Jon Azkorbeberria Txurruka  
K.Z. 20.000.752  
**HORTZ KLINIKA**  
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

**GILA TABERNA**  
GOIZEKO 6:30ETATIK AUERRERA ZABALIK  
GOSARIAK  
ETA PINTXO  
GOXO GOXUAK  
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

**Desing**  
Discinua eta Formena  
Poligono Amillago, nº 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17  
Altzairuen fabrikazioa:  
• Bainugelak  
• Sukaldeak  
• Hormo-armairuak  
• Barruko altzairuak

# 2009rako 12 mendi irteera prestatu dituzte

L

ehengo irteera, apirilaren 5ean izango da, domeka, eta Mendiola-Gurutze Berri bitar-



## Debarreneko nesken txirrindulari taldea

D

tean egingo dute. Apirileko bigarren irteeraberriz, Aiatik-Pagoe-tara izango da eta hilaren 26rako prestatu dute. Maiatzeko irteeren berri ere eman dute. Maiatzaren 10ean Adarrara joango dira eta maiatzaren 24an Kalamuara. Berritasunen artean, Soraluze-ko Kirol Elkarteko bazkide diren gazte eta nagusiek irteeretan deskontuak izango dituztela aipatu dute antolatzaileek. Bazkide gazteenei, gainera, txartel bana banatuko zaie eta irteera bakoitzean zigilu bat jarriko diete. Irteera kopuru bat lortzen dutenek, urteko azken irteeran, finalista egunean, opari bat jasoko dute.

### EMAITZAK

**FUTBOLA**

Amaroz-Sora (Erreg. M.)	2-3
Sora (Jub)-Amaika bat	1-4
Sora (Kad)-Zestoa	1-4
Arizmendi-(Sora Errg.N)	1-3
Sora (Errg.M.)-Usurbil	4-1
Sora (Jub)-Aretxabaleta	1-5
Lagun Onak-Sora (Kad)	4-2
Sora (Erreg.N)-Mutriku	5-1

### AGENDA

**Domeka 15, 16:30ean Ezozin**  
Sora (Erreg.M.)-Amara Berri

**Zapatua 14, 17:30etan Plazetan**  
Alerru- Sora (Erreg.N)

**Zapatua 14, 16:15etan Ezozin**  
Sora (Kad.)-Arizmendi

**Domeka 15, 17:30ean Unben**  
Eibartarrak-Sora (Jub)

### Mendi taldea eguenetan bakarrik bilduko da

Mendi taldeko arduradunek jakinarazi dute Federazioko txartelak egiteko epea amaitu dela eta, hurrengo astetik aurrera, eguenetan bakarrik bilduko direla Pil-pileaneko lokalean. Orain arte eguaztenetan ere biltzen ziren.

**ORDUTEGIA:** eguenetan, arratsaldeko 19:30etatik 20:30etara.

## ZORION AGURRAK



**Itsaso Cenual**  
Martxoaren 7 an 21 urte!  
Beti bezain jator jarraitu, eta etxekuen partez muxu haundi bat!!



**Adur eta Iruñe Odriozola**  
Martxoaren 1ean eta martxoaren 19an urtiak betetzen ditzuzelako! Muxu haundi bat danon partez!



**Ibai Rodrigex Larrañaga**  
Martxoaren 11an 5 urte!  
Zorionak potxolo! Ondo pasatu zure egunean! Muxu haundi bat etxekoen partez!




**Eukén Oliveri Lopez**  
Martxoaren 7an 4 urte!  
Zorionak mutil haundi eta muxu haundi bat etxeko guztien partez!



**Jon Urdangarin**  
Martxoaren 9an 8 urte!  
Zorionak eta muxu haundi bat etxekuen partez!



**Oihan Larrañaga Agirre**  
Martxoaren 4an 3 urte  
Zorionak txapeldun! Muxu haundi bat etxekuen partez!



**Markel Soraluze**  
Martxoaren 14an 3 urte!!  
Zorionak etxeko guztien partez!



**Uxue Esnaola Torrientes**  
Martxoaren 16an urtebete!  
Zorionak politta eta muxu haundi bat etxekoen partez!



**Amuiz Perez Lizarralde**  
Martxoaren 17xan, urtebete!!  
Zorionak sorgintxo! Muxu pila pila bat etxekuen partez!



**Joel Rascon Sousa**  
Martxoaren 17an 2 urte!!  
Zorionak politta! Ondo pasatu zure egunean eta muxu bat etxekoen partez!



**Jose Ayora Exposito**  
Martxoaren 12an 49 urte!  
Zorionak aita! Ondo pasatu zure egunean eta 49 muxu gutako bakoitzan partez!



**Alex Morales Mangano**  
Martxoaren 21ean 33 urte!!  
Zorionak eta muxu haundi bat etxekoen partez, maitte zaituztelako!



**Iraulza Ostolaza Lakuesta**  
Martxoaren 20an 6 urte!  
Segi zure alaitasunarekin gure bihotzak betetzen! Zurekin koloretako ametsak ditugu!



**Mikel eta Ane**  
Martxoaren 11an 37 urtetxo!  
Zorionak aitaxo eta tia Ane! Ilargiraino eta bueltan maitte zaituztet! Iraulza

## IRAGARKIAK

Neska euskalduna naiz eta umeak zaintzeko prest nago. Esperientziaduna.

Galdetu Iratxo goxodendan.

## jaiotakoak

KEVIN COBOS GALLARDO

## hildakoak

GONZALO GOROSTIDI ZUBILLAGA  
CASILDA IRASUEGI ELEJALDE  
JUANA EGUREN LARREATEGI  
JOSEFA LARRAÑAGA LETE

## LEHTAKETA

### ► Soraluzen, zein da baserri gehixen daukan auzua?

- 1- San Andres
- 2- Irure
- 3- Ezozia

### ► Saria: Txurruka jatetxean 30 euro prestatutako janarietan gastatzeko.

## AURREKO ALEKO ERANTZUNA

### ► Irabazlea: Pedri Lete

- Txurruka auzuan, 15 baserri dare (Artea, Agirre, Unamuno, Egotza, Egotza-etxetxo, Txurruka-azpi, Txurruka-barri, Txurruka, Agirrebeiztegi, Madari, Oriturri, Azaoleaga, Mendizabal, Edurdungoa eta Zuloaga).





# ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Arantza L.

## EMAKUME TALDEA DOTORE JANTZITA

**A**rgazki eder hau, Arantza L.-k ekarritakua da eta baserri baten ataixan etaratakua dala emoten dau. Bertan, 10 emakume oso dotore jantzita agertzen dira eta ezkondu aurreko despedidia ospatzen darella emoten dau. Batzuk, lore polittx bat dardoile paparrian.

### ARGAZKIKO EMAKUMEAK:

- |                       |                         |
|-----------------------|-------------------------|
| 1. Julita Urreztarazu | 6. Milagros Etxaniz     |
| 2. Blanca Bolunburu   | 7. Juanita Atzeginolaza |
| 3. Pilar Aldazabal    | 8. Placidia Lopez       |
| 4. Miren Aizpiri      | 9. Maritxu Argarate     |
| 5. Pepita Eguren      | 10. Juanita Aldazabal   |

## GONZALO GOROSTIDI ZUBILLAGA

“Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu ahaztuko”

“Senitartekoak eskerrak eman nahi dizkizuegu dolu adierazpenengatik”

SORALUZE, 2009-KO OTSAILAREN 25A.



## ROBERTO URBISTONDO LARRAÑAGA

2008KO MARTXOAREN 28AN HIL ZEN  
47 URTE ZITUELA

Momentu eder asko elkarbanatu genituen, garaipen eta porrotekin poztu eta tristetuz. Gure oroimenean eta bihotzetan gordeko zaitugu.

**Soraluzeko Txuri-Urdin Elkarte**

**Eskerrik  
asko  
danori!**

Soraluzeko **D3M** plataforma



**eskerrik  
asko**

[www.aralar.net](http://www.aralar.net)



ezkerreko **alternatiba** abertzalea



aralar



MAKINA BEREZIAK  
LERRO AUTOMATIKOAK  
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA

SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.  
Mendiola industrialdea, 14-5 • Tel. 943 75 18 91 • SORALUZE



## Fresatzeko Teknologia



Mahai Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua  
Mahai Finkoarekin



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



SORALUCE, S.Coop.  
Osintxu Auzoa  
E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Tel. +34 943 76 90 76  
Fax. +34 943 76 51 28  
E-mail: [soraluce@soraluce.com](mailto:soraluce@soraluce.com)  
[www.soraluce.com](http://www.soraluce.com)

